

BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN SAILA

5489

EBAZPENA, 2024ko azaroaren 12koa, Osasuneko sailburuordearena, osasun-arloko irabazi-asmorik gabeko fundazio eta elkarteentzako laguntzak ebazten dituen, 2024an osasun arloko profesionalentzako etengabeko prestakuntza-jarduerak antolatze.

Osasuneko sailburuaren 2024ko apirilaren 17ko Aginduaren bidez, osasun-arloko irabazi-asmorik gabeko fundazio eta elkarteentzako laguntzen oinarriak ezarri eta deialdia egin zen, 2024an osasun-arloko profesionalentzako etengabeko prestakuntza-jarduerak antolatze (2024ko ekainaren 3ko EHAA, 107. zk.). Guztira, 79.409,00 euro eman ziren.

Agindu horren 11. artikulua ezartzen duenez, lehiaketa-prozedura Osasuneko sailburuordearen ebazpenaren bidez ebazteko da, organo kudeatzaileak proposatuta.

Aldez aurretik, Osasuneko sailburuak horretarako izendatutako Balorazio Batzordeak, aurreikusitako balorazio-irizpideak aplikatuz, txostena eman du, egindako ebaluazioaren emaitza zehaztuz. Eta organo kudeatzaileak, espedientea eta batzordearen txostena ikusita, ebazpen-proposamena egin du.

Azaldutako guztiagatik, deialdi honetara aurkeztutako eskabideak ikusita, eta Balorazio Batzordearen txostena eta organo kudeatzailearen ebazpen-proposamena kontuan hartuta, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– 2024an osasun-arloko profesionalen zuzendutako etengabeko prestakuntzako jarduerak antolatze laguntzak ematea osasun-arloko irabazi-asmorik gabeko fundazio eta elkartei, I. eranskinean zehaztutako zenbatekoetan.

Bigarrena.– II. eranskinean zerrendatutako erakundeek aurkeztutako eskabideak ukatzea, bertan adierazitako arrazoiengatik.

Hirugarrena.– III. eranskinean zerrendatutako eskabideak artxibatzea, erakunde eskatzaileek atzera egin dutelako, bikoiztutako edo oker aurkeztutako eskabideak direlako.

Laugarrena.– Jakinaraztea Balorazio Batzordeko lehendakaria, Antonia Daza Gutierrez, Ion Etxeberria Bidondok (Osasun Saileko Irakaskuntza eta Lanbide Garapeneko Zerbitzuko ardura-dunak) ordezkatu duela.

Víctor Bustamante Madariaga batzordekidea Maite Martínez de Albéniz Zabaleta andreak ordezkatu du (Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua erakunde publikoko Asistentzia Sanitarioko zuzendaria).

Bosgarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Osasuneko sailburuari, hilabete epean, ebazpena EHAA argitaratzen denetik aurrera, hala ezarrita baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112. artikuluan

2024ko azaroaren 29a, ostirala

eta hurrengoetan. Horretaz gainera, ongi iritzitako beste edozein lege-egintza ere baliatu ahal izango dute.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko azaroaren 12a.

Osasuneko sailburuordea,
ENRIQUE FERNANDO PEIRÓ CALLIZO.

2024ko azaroaren 29a, ostirala

I. ERANSKINA

EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

ETENGABEKO PRESTAKUNTZAKO JARDUERAK ANTOLATZEKO LAGUNTZAK

Espediente-zenbakia	Erakundea	Prestakuntza-jarduera	Zenbatekoa (eurotan)
3	Osasungoa Euskalduntzeko Erakundea Elkartea (G20364428)	33. Osasun Biltzarra «Botiketarik haratago»	4.000,00
5	Erain Elkarteko Osasun Mentala, S.Coop.Pequeña (F95561650)	«Mujer y Salud mental desde la mirada de los Derechos Humanos» jardunaldia	2.000,00
10	Sociedad Vasco Navarra de prevención del tabaquismo-Euskadi eta Nafarroako (G95533295)	«Aire Berri Día Mundial sin Tabaco 2024» jardunaldia	2.000,00

2024ko azaroaren 29a, ostirala

II. ERANSKINA

UKATUTAKO ESKABIDEEN ZERRENDA

ETENGABEKO PRESTAKUNTZAKO JARDUERAK ANTOLATZEKO LAGUNTZAK

Espediente-zenbakia	Erakundea	Prestakuntza-jarduera	Ukatzeko arrazoia
2	Colegio Oficial de Enfermería de Alava (Q0166003D)	Alimentación Cetogénica	Zuzenbide publikoko korporazioa da. Ez du betetzen irabazi-asmorik gabeko fundazioa edo elkarte izateko baldintza (deialdi-aginduaren 4. artikulua)
		Acceso Vascular	
		Electrocardiografía básica para enfermeras	
		Estomaterapia: Cuidado de las ostomías	
		Sexología básica para profesionales de la enfermería	
		Soporte vital inmediato	
		Suelo pélvico	
4	Colegio de Enfermería de Bizkaia (Q4866003I)		Zuzenbide publikoko korporazioa da. Ez du betetzen irabazi-asmorik gabeko fundazioa edo elkarte izateko baldintza (deialdi-aginduaren 4. artikulua)
6	Asociación de Esclerosis Múltiple de Araba-AEMAR (G01123835)	Curso taller de splints	Ez du betetzen jarduerak 2024ko ekitaldian egiteko baldintza (deialdi-aginduaren 5.1 artikulua).
		Curso taller disfunciones suelo pélvico en paciente neurológico (esclerosis múltiple)	
		Curso taller esclerosis múltiple y suicidio	
7	Academia de Ciencias Médicas de Bilbao (G48087829)	SIBO: Qué hay de moda y que de realidad	Ez du gutxieneko puntuazioa lortu (deialdi-aginduaren 10.a artikulua: «Balorazioan gutxienez 50 puntu lortzen ez dituzten eskabideak ez dira finantzatuko»).
		ELA 2024: Desmontando mitos y leyendas	
		ELA 2024: Desmontando mitos y leyendas	
		Valoración del candidato a trasplante hepático	
		Investigación en Salud en Bizkaia. Tendiendo puentes entre la asistencia y la investigación	
		Caso clínico, aproximación y manejo	
		Impacto de la contaminación en la salud	
		La fragilidad y la fractura como causa de pérdida de calidad de vida. Documento de consenso	
		Actualización en cannabis	
		Eventos adversos en endoscopia: hablemos y aprendamos de ellos	
		Nuevas líneas de investigación biológica en oncología: aplicaciones clínicas	
		Diarrea crónica: Exposición de Caso y Aproximación Diagnóstica	
		I Jornada sobre trabajo y salud: cómo ayudar a dejarlo	
		Vigilancia de pacientes con alto riesgo de cáncer colorrectal	
Salud mental grupos Ballint			

2024ko azaroaren 29a, ostirala

Espediente-zenbakia	Erakundea	Prestakuntza-jarduera	Ukatzeko arrazoia
7	Academia de Ciencias Médicas de Bilbao (G48087829)	51 ^a Semana Médica: «La edad del hombre/mujer es la de sus arterias», rompiendo moldes Gastroenterología Salud mental Gastroenterología Gastroenterología	
8	EFEKEZE, Euskadiko Familiako eta Komunitateko Erizaintzaren Zientzia ELKARTEA/Sociedad Científica de Enfermería Familiar y Comunitaria de Euskadi (G95507158)	Elaboración de resúmenes y pósters para Congresos/Jornadas: El arte de la comunicación científica El ABCDE de la investigación enfermera	Ez du gutxieneko puntuazioa lortu (deialdi-aginduaren 10.a artikulua: «Balorazioan gutxienez 50 puntu lortzen ez dituzten eskabideak ez dira finantzatuko»).
9	Asociación Paliativos sin Fronteras (G75000521)	Medicina Paliativa en niños y adolescentes	Ez du betetzen jarduerak 2024ko ekitaldian egiteko baldintza (deialdi-aginduaren 5.1 artikulua).

2024ko azaroaren 29a, ostirala

III. ERANSKINA

ARTXIBATUTAKO ESKABIDEEN ZERRENDA

ETENGABEKO PRESTAKUNTZAKO JARDUERAK ANTOLATZEKO LAGUNTZAK

Espediente-zk.	Erakundea	Prestakuntza-jarduera	Artxibatzeko arrazoia
9	Asociación Paliativos sin Fronteras (G75000521)	El valor de los cuidados en paliativos	Prozeduran atzera egin du (eskatutako dokumentazioa ez zuzentzeagatik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. eta 68. artikuluetan ezarritako epean).